

...eta kittO!

724 zkia. 2010-VI-4

ASTEKARIA

TOKIKOM

Udako Ikastaroetara GERTUratzen




Teilatuak Fatxadak Sukaldeak
Gremioen koordinazioa etab.




JORGE VEGA S.L.
IGELTSERITZA

F. Calbetón, 4 - 3. solairua Tel. 943 20 83 26 eta 607 20 12 23
jorgevega.eibar@gmail.com jvega@jorgevega.es



5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak

**ZEZEN
BIDE**




**AUTO
ESKOLA**



**ORDUTEGIA:
09.30-13.00
15.30-20.30**

GIDA-BAIMENAK

San Andres, 1 ac
Tel. 943 20 34 45
EIBAR



RPS 04/02



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk.


Tel. 943 208552

*Udaberri honetan
zure irribarrea modan*

**BENETAKO
PAZIENTEAREN
IRUDIA**



ANTONIO MURILLO Doktorea:
Masterra Periodontozian eta Inplantologian



AINHOA ZULUETA Doktorea:
Odontologoa

DESKONTUA

%10

**Protesiak
Ortodontzia
Inplantologia
Periodontzia**

**DIAGNOSTIKOA
KONPROMISO GABE**



ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartera
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi,

E. Belar eta S. Hernandez

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Udako Euskal Unibertsitatea

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

7.950 ale

INPRIMATEGLA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

GAU ITXUA HELDU.- Gaitu, ilundu. "Gau itxua heldu baiño lehen Mañari aurrekaldian agertu zan Peru".

GAU ZURI.- Ilargi beteko gau argia. "Ama ilargixan gau zurixetan egitten zittuen euren adoraziñuak".

GAUR ANIMEN, BIXAR KORPUTZEN.- Arimen egunean egiten ziren larregizko jan-edanen biharamuneko ajea adierazteko esatera. "Gaur Animen dok, baiña bixar korputzen izango dozue".

ESKUTITZAK

KRISIAREN ERAGINA OTE?

Azken hilabete hauetan saiatu naiz behin baino gehiagotan aldizkaria internetez irakurtzen, beti ez baitut etxean jasotzen. Baina badira aste batzuk interneten ez dudala topatzen. Krisia ote? Pena da, nahiko herramienta eroso da etxetik jasotzea. Eta bide batez aipatu nahiko nuke faltan botatzen ditudala orain arte hemen agertu izan diren kolaborazioak, zutabeak, iritzi ezberdinekin azaltzen baitzen herriko egoera. Hori ere krisiaren errua da? Ez dago dirurik hauen lana pagatzeko? Orain ez dago berri handirik, eta gauza bera da egunkaria irakurtzea edota aldizkaria zabaltzea. Pena da hau ere.

AMAIA ETXEZARRETA

asteko

HEMEROTEKA

esaldiak

"Krisiaren txantxarekin 330 milioi euro galdu ditugu salmentetan Fagor Electrodomésticos-ean. Hala eta guztiz ere, ez dugu tailerrik itxi, ezta produkzio plantarik; merkatuari egokitu garen arren. Enpleguari begira, 2006an genituen baino 2.000 lagun gutxiago ditugu; eurretatik, 900 bat hemengoak ziren, 600 bat bazkide gainera. Baina inor ez dugu kaleratu"

(Txema Gisasola, Fagor Electrodomésticos-eko zuzendaria)

"Etorkin gazteek edozer egingo dute, baina ez nahi dutelako. Etorkinen ekarpen guztiak positiboak dira; baina, guztia ukatzen bazaie, piztia bihur ditzakegu. Bizitzaz beterik daude gazte horiek; gizarteak hondatua egon behar du bizitzaren iturri hori sartzeari beldurra izateko. Gainera, legeak denbora gehiegi eskaintzen die gaizkile ahulenei, eta gutxi boterea dutenei"


(Enrique Martínez Reguera, hezitzailea)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

 kutxa

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

autuan

METALEKO GREBA

Aurreko astean lehenengo greba jardunaldia egin zen metalgintzan eta gaurko bigarren greba jardunaldia deitu dute. Gipuzkoako hitzarmenaren alde. Hilaren 10erako eta 11rako ere greba deitu dute ELA eta LAB sindikatuek.

TXOSNAK

Sanjuanetan txosna ipini nahi duten taldeek ekainaren 7ko 14.00ak baino lehen aurkeztu beharko dute eskaera Pegoran. Bilera, berriz, ekainaren 9rako deitu dute, 12.30etan udaletxeko 2. solairuan.

EB-REN MOZIOA

Ezker Batuak Espainiako Gobernuak kongresuan aurkeztutako doikuntza planaren kontrako mozioa aurkeztu du. EB-ren berbetan "Gobernu Zentralak errenta handienei zergak murrizteko neurriak baino ez ditu hartu". Ezker Batuaren mozioa, hala ere, ez zuten onartu aldeko botu bi, kontrako hamaika eta zazpi abstentzioren ostean.

Merkatu plazako bezeroei saria

ERREBALGO MERKATU PLAZAKO DENDARIEK ASTELEHENEAN EGINDAKO ZOZKETAN Carmen Alzola Aizpuru-k 200 euroko erosketa-txartela irabazi zuen. Astelehenekoa urte amaierara arte martxan egongo den kanpainaren barruan egin den lehenengo zozketa izan da eta, sari nagusiaz gain, beste 24 erosketa-txartel (bakoitza 25 euroko baliokoa) banatu zituzten. Hauek izan dira sarituak: Mari Carmen Jaramillo, Carmen García, Iker Umerez, Begoña Maguregi, Osane Aldai, Benita González, Olga Urizar, José Arza, Teresa Agirreazaldegí, Iciar González de Audicana, Esperanza Agirre, Olga Pildain, Maria Isabel Motrico, Vitoria Zabala, Ana González Co-



bo, Mari Carmen Fernández, Isabel Otxoa, Luisa Fernández, Nieves Iriondo, Javier Umerez, Violeta Miñambres, Agustina Fuentes eta Maria Teresa Gisasola.

Abontzako jai arrakastatsuak

ORAIN ASTEBURU BI ABONTZAKO ITTURIXA ELKARTEAREN ESKUTIK OSPATUTAKO JAIA "ARRAKASTA-

TSUA" izan dela azaldu digute antolatzaileek, iazko parte-hartzea gainditzera (iazko afarian 300 lagun batu ziren

eta aurten 400 afari banatu dituzte). Jai batzordekoen berbetan "bazkarian ere dena beteta egon zen eta, ohizkoa den moduan, Gorritiren saioa, karaokea, umeendako jolasak eta bestelakoak parte-hartzaile askorekin egin ziren. Bari-xakuan ere jende ugari etorri zen". Bestalde, aurtengo jaietako zozketan saritutako zenbakiak 4.045 (Kantabriako Villa Pasiaga hotelean lagun birendako gau bi, armozua, afaria eta spa barne) eta 9.155 (Arrateko Krabelin hotelean lagun birendako gaua eta afaria) izan dira.



Bazkariaren ondoren, arratsalde beteak izan zuten Abontzakoek jaiekin gozatzeko.

...eta kitto!n **SALGAI**
Ur kizu, 11

Pasa-falta:

- Nagusiak, 26 euro
- Umeak, 20 euro

Rugbi:

- Nagusiak, 26 euro

...eta kitto!:

- Basikoa, 20 euro


Kamisetak SALGAI



Ospital berriaren plana abian

EIBARREN EGONALDI ERDI ETA LUZEKO OSPITALA EGITEKO PLAN FUNTZIONALA EGITEN HASIKO DA EUSKO JAURLARITZA astelehenean Jesus Maria Fernandez Osasun sailburuordeak eta Eduardo Garate Osasun Planifikaziorako zuzendariak zehaztu zuten. Miguel De los Toyos alkatea ere bileran egon zen eta Osasun sailak Gipuzkoan ospitaleko ohe defizita antze-

man duela aipatu zuen prentsaurrekoan. *"Horren aurrean 100 eta 120 ohe bitarteko ospitala egingo da Eibarren"*, esan zuen alkateak. Lekuari dagokionean 4-5 leku proposatu dituela aipatu zuen De los Toyosek. *"Kokalekua ospitalaren beharrezan arabera zehaztuko da"*. Mendaroko ospitalarekiko independentea izango da Eibarkoa eta lehen lanak 2012an hastea espero du alkateak.



EAJ Errebaleko Merkataritza-Gunearen alde

ERREBALEKO AURREKO PROIEKTUAK HUTS EGIN ZUENEA merkataritza-gunea egiteko proposamenarekin jarraitzeko apustua egin zuen alderdi bakarra izan zela adierazi zuten joan den astean EAJ-k, eta gaur egun proiektu hori aurrera eramateko prest dauden sustatzaileak euren ekimenez daudela. Euren usteetan merkataritza gune berria egiteko proiektuak ezin du gehiago itxaron, *"estrategikoki oinarritzko zutabea da Eibarrentzat"*.

Alcer Gipuzkoaren kanpaina

ZAPATUAN, GOIZ ETA ARRATSALDEZ, TORIBIO ETXEBARRIA KALEAN EGONGO DIRA ALCER GIPUZKOA ELKARTOKO ORDEZKARIAK, organo emaitzaren inguruko informazioa banatzeko prest, El Corte Inglés inguruan ipiniko duten mahaian. Berriz ere organo emaile izatearen garrantziaz kontzientziatu nahi dituzte herritarrek, eurek dioten moduan, *"emailerik gabe transplanterik ez dagoelako"* eta norbaitek emandako organoari esker zenbat lagun bizi den azpimarratu nahi izan dute.

auzoric auzo



Urki, rock eta samba erritmora

Gaur arratsaldean, 19.00ak aldera hasiko dira Urki auzoko jaiak eta asteburua oso-osorik beteko dute. Gaurko antolatuta dauden ekitaldiei begiratuta, gaueko rock kontzertuak jende asko erakartzea espero dute antolatzaileek: 23.00etan Kilonbo Tribe taldea hasiko da gaua girotzen eta, jarraian, gauerdian, Kaotiko taldearen kontzertuarekin goia jotea espero dute. Bihar, berriz, goizean hasiko dira ekitaldiak, 11.30etan Galiziako Etxeko gaiteroen dianarekin eta egun osoan izango da zer egin: 12.00etan umeendako jolasgunea zabalduko dute ikastetxean eta ordu erdi geroago salda eta txorizo-jana egingo da Cepa tabernaren pareko arkupeetan. Arratsaldean 16.00etatik 18.00etara berriz ere umeendako jolasgunea egongo da martxan. Hala ere, Urkiko jaietako berezitasun nagusia den cava eta otarrainskaren jaiak 19.30etan hasiko da, Rio Samba Show taldekoek alaituta. Herriafariaren ondoren berbena egingo da, Caiman orkestrarekin. Eta domekan, diana eta mezaren ondoren XII. Paella lehiaketa eta II. Mendi-Lasterketa (Urki-Galdaramiño-Urki) jokatuko dira. Arratsaldean umeen jaiak ospatuko da, Txipilandiaren eskutik eta jaiak agurtu aurretik, aurten Juan Araujo jai batzordeko kide izandakoak jasoko duen Urrezko Otarrainska emango dute.


eibar kalea

Isasi kalea

Kalearen izen berbera daraman Isasiko jauregia gure artean Markeskua izenarekin ezaguna da. Bertan bizi izan ziren Martin Lopez de Isasi XVI. mendeko merkataria eta haren emaztea izan zen Domenja Orbea. Mendeak igarota ere, Untzagaraino doan kaleak jauregiko ugazabaren abizena gorde du.

Pegora kopurua:
27.

Erroldatutakoak:
561.




asteko
462.000
datua

euroko iruzurra egin zuen aste honetan epaitu duten gizonezkoak. Gipuzkoako entzutegian beraren kontrako karguak onartu ditu eta zigor modura 4 urte eta 9 hilabeteko espetxe zigorra ezarri diote, 2.500 euroko isunarekin batera.

Aralarren proposamena Errebalerako

ERREBAL ETA MATXARIA ARTEAN GUNE BERRIA EGITEKO PROPOSAMENA AURKEZTU DU ARALARREK. Torrekuako poloaren indarra orekatzeko asmoarekin aisialdia, kultura eskaintza erakargarria eskainiz, zentralizazioa eta garraio publikoaren indartzearekin Estaziño/Errebal polora jendea erakartzeko proiektua da Aralarrena.

El Casco enpresa Industria Museoa jasotzeko eraikuntza kulturalean bihurtu nahi du (dendak eta aisialdirako gune-



El Casco eskaintza kulturala handitzeko erabilteza proposatzen du Aralarrek.

ak sortu behar bada) Aralarrek. Bestetik, Errebaleen parke berdea egiteko asmoa erakusten dute merkatu plaza eta lur-azpiko parking-arekin. Matxarian, azkenik, autobus geltokia egite-

ko proposamena aurkezten da; eta bideragarritasuna errazteko Estaziño kalean eta Pagaegi kaleen artean bidea egitea eskatzen dute, eta Julian Etxeberria oinezkoentzat izatea.

Belaunaldien arteko elkargunea

GAUR ARRATSALDEAN, 18.00-ETATIK 20.00-ETARA, BELAUNALDIEN ARTEKO II. ELKARGUNEA EGINGO DA KARMEN KALEAN, Beheko Tokia jubilatuen etxearen parean. Udalak, Biztu Jubilatuen Koordinakundeak eta Eibarko kale hezitzaileek, Errota gaztelekuaren laguntzarekin antolatutako elkargunean, besteak beste, dantzak, jolasak, eskulanak eta txokolate-jana egingo dituzte nagusiek eta gazteek, denek elkarrekin.



Hiri-koexistentziarako kalea izango da San Agustin. / SILBIA HERNANDEZ

San Agustinen aparkaleku gabe

HILAREN 31-TIK EZIN DA SAN AGUSTIN KALEKO EZKERREKO ALDEAN (MARTXAREN ARABERA) APARKATU. 'San Agustin kalearen inguruan hiri-koexistentziako gunea sortzeko' obrak hasi dira egiten eta ka-

le horretan aparkatu zezaketeen 10 guneak desagertu egingo dira lanek jarraitzen duten bitartean. Obrek aurrera egin ahala aparkaleku gehiago kenduko dira eta lanak egiteko epea 12 astekoa izango da.

Elektronikaren inguruko jardunaldia

AURREKO ASTEKO EGUEAN ELEKTRONIKA ETA TELEKOMUNIKAZIOAK AZTERTZEKO JARDUNALDIA hartu zuen Armeria Eskolak. Argazkian agertzen diren Tomás Iriondo GAIako presidentek,

E. Arceredillok (Tekniker), Jesús Mari Iriondok (Maser enpresa), F. J. Vicandik (Eibarko EUITI) eta José Luis Novoa Armeria Eskolako zuzendariak hartu zuten parte hedapen jardunaldian.



Armeria Eskolan egindako ekitaldiko parte-hartzaileak.

Kurtsua amaitzeko gitxi falta da eta ikasliek azken txanpari ekin detse Sanjuanak heldu aurretik. Azterketa sasoia bizi dabe eta liburutegixak gaiñezka dagoz. Nota onak ateraz gero sarixa jasoko dabe batzuk etxian (ikastiak emoten daben sarixaz gain): bizikletak, motorrak... eta operaziño estetikuak?

Zer begittantzen jatzu operaziño estetikuak oparitzia?



HARITZ SIMON
22 urte
langabia

Berdin jata bakoetak zer egitten daben, baiña nota onak etaratzia-gaittik operaziño estetikuak oparitzia ez dot oso ondo ikusten, ez da normala. Halanda be, bakoetak egittia daka nahi dabena. Neri nota onengaittik emon esten zeozer, baiña detaille txikixak, motibatzeke batez be.




JOSE DAVID GUZMÁN
31 urte
zerbitzarixa

Begittantzen jata holako gauza bat ez daguala oso ondo ikusitta. Operaziño estetikuen gauzia helduentzako da gehixago ikasle gaztiendako baiño. Gaiñera, gaztiak oindiñok guztiz egin barik dagoz, oindiok hazi egin bihar dira, ez dagoz guztiz eginda fisikoki.

IRUNE ARAUJO
32 urte
saltzaillia

Gurasuek holako gauzak eskatzia lagatzen badabe eta oparitzen badetse, zergaittik ez? Nik nota onak etaratzien nittuanian ez neban ezer berezirik eskatzen eta operaziñuena larregizkua begittantzen jata. Baiña euren artian ondo ulertzen badira, ez dot txar-to ikusten.



PATXI XABIER FLORES
56 urte
jubilaua

Ez da normala nota onak etaratzia-gaittik operaziño estetikuak oparitzia: hori umia erostia da. Gure denporan ez bagenduan gaintitzen zaplasteko bi emoten zeskuen; eta, gaintituz gero, ba, ezer. Jakin bihar dabe ikasketia bizitzan aurrera egitteko dala eta ez jakue txantajeau bihar.



ESTUDIOS ARRILLAGA

PROIEKTUAK ERREFORMAK LOKALAK ETXEBIZITZAK

Arragueta, 12 EIBAR **ELGOIBAR Errosario, 15**
Tel. 943 20 06 98 Tel. 943 74 40 19

EGOITZA NAGUSIA
Bilbarrizta 20 - behea, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Errozketa laber
Egoibaren (Signo poligonoan)
Partikular, mutua eta aseguru ezeei zerbitzuak
Korak - Eskelak - Urteurrenako eskelak
Euskal Herri osoko ospitaleetan hartzen zaizgu
Nazio eta Nazioarteko iruzkiak

Mugica Erorketa
Errozketa laber

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

Udia aillegatzeko gero eta gitxiago falta jaku eta, urteroko moduan, ikastetxe gehixenak oporrak hartzen dittuen sasoiari, Udako Euskal Unibersidadia urteko eskintzarik zabalenari ekiteko prest, gertu dago. 38. Udako Ikastaruak atzera be egunerokotasun haundiko gaixak modu ariñian lantzeko aukeria eskinduko deskue. Eibarren ekaiñaren 28xan hasiko dira lehelengo kursuak emoten eta, Baionan eta Iruñean emongo dittuenekin batera, benetan programa interesantia osatzia lortu dabe antolatzailliak.

Gertu dagoz 38. Udako Ikastaruak

UEUren oinarrian unibersidadia osatzen daberen bazkidiak dagoz. Momentu honetan 1.100 bazkidek gora dakaz UEUK, asko eta asko Euskal Herrikuak, baiña hamendik kanpokuak be badagoz. Bazkidiak 27 sailletan banatzen dira eta sailletako bakotzak jakintza-arlo baten inguruan dihardu biharrian, modu autonomuan. Saillak hónetxek dira: Antropologia, Antzerkilaritza, Arkitektura, Artea, Bertsolaritza, Ekonomia, Filosofia, Fisika, Glotodidaktika, Historia, Hizkuntzalaritza, Informatika, Itzulpenitza, Kazetaritza, Kimika, Klimatologia eta Meteorologia, Literatura, Matematika, Musika, Natura Zientziak, Osasuna, Pedagogia, Psikologia, Sexologia, Soziolinguistika, Soziologia eta Zuzenbidea. Saillatoko bakotzak, UEUren idazkartzarekin batera, udako ikasta-

ruetarako eskintza preparatzen dau, hortik urtero holako eskintza zabala egotia ikastaruetan. Baiña ez hori bakarrik: ikasturte guztian garatzen diran bestelako ikastaro, jardunaldi eta jarduerak antolatzen dittue sailletako bazkidiak, liburuak kaleratzen dittue eta, azken batian, euren jakintza-arluarekin lotutako ikerketak eta bestelakuak aurrera eruaten dittue etenbarik.

Edozelan be, oindiok be UEUren produkturik ezagunena udako ikastaruak dira. Eibarren, Baionan eta Iruñean emongo dira 38. Udako Ikastaruak: Eibarren, ekaiñaren 28tik uztaillaren 2ra eta uztaillaren 12tik 16ra eskinduko dira ikastaruak, Markeskua jauregixan; Baionan, uztaillaren 5etik 9ra; eta, Iruñean, barriz, uztaillaren 19tik 23ra. Eskintza osua aldameneko kuarduan konsultatze moduan dakazue eta, begibistakua da-



nez, aurretik aittatutako jakintza-arlo guztiak edo ia guztiak ukituko dira kursoetan.

Saio osagarri eta irekixa Lekeittion

Aittatutako ikastaruez aparte, saio osagarria antolatu dabe uztaillerako, Lekeittion emongo daberen "Euskal punk eta (des) eraikuntza nazionala" ikastaruen inguruan. Saio irekixak izango dira eta, beraz, nahi daberen hartu leike parte, alde aurretik izena emon edo bestelakorik egiteko premiña barik. Uztaillaren 13an, 19.00etan, Lekeittioko kultur etxian "Goroldiorik gabeko harribitxiak: kantu definitiboen bila" izenburuko hitzaldia eta musika entzunaldia eskinduko dira. Hurrengo egunian, toki eta ordu berian, "Mikel Laboa: sekula belardiko musikaria" izenburuko saioa garatuko da eta uztaillaren 15erako, barriz, Mikel Laboaren omenezko kontzertua egingo da.

Bestalde, udako ikastaruen amaiera-ekitaldia Iruñean egingo dabe, Zaldi Zuria tabernan eskinduko dan kontzertuaren inguruan. Hori be saio irekixa izango da, musutruk.

Matrikulia betetzeko azken egunak

Ikastaruetarako matrikulaziñua maiatzaren 10az geroztik dago martxan eta ekaiñaren

20ra arte egongo da zabalik (ikastarua hasi baiño astebete lehenagora arte egindako matrikulak onartuko dittue). Azken urtietako martxari jarraituta, matrikulaziñua on-line, internet bidez egitteko aukeria eskintzen dabe, UEUko webgunian bertan. "Matrikulatu" diñuan ikonuen gaiñian klikatu eta segidu biharreko pausuak jarraitu, besterik ez da egin bihar.

Matrikularen prezia ikastaro motaren arabera da eta, horrez gaiñ, ikasle, langabetu eta erretirauendako eta UEUko kiendiako prezio berezixa, merkiagua daka. Ikastaro bakotxaren aldamenian motari lotuta doian letria agertzen da eta horri begiratu biharko jako aukeratutako ikastaruen prezia zein dan jakiteko: A motakuen matrikulia 81 euro balixo dau (69 euro ikasle, langabetu eta erretirauendako), B motakuenak 117 euro (99 eta 88 euro), C motakuenak 163 euro (138 eta 122 euro), D motakuenak 292 euro (263 eta 219 euro), E motakuenak 190 euro (162 eta 142) eta F motakuenak 33 euro (28 eta 25 euro). Horrez gain, Eibarko Udalak, beste batzuek egindakoaren bidetik, gure herrixan errolatuta daguazeneri, matrikulia kostatzen daberen erdixa pagatzen detse.



Ekaiñaren 28xan hasiko dira Eibarren lehelengo kursuak.

Ikastaruen inguruan bestela-
go erreztasun eta zerbitzuak be-
emoten dittue antolatzailliak:
"Udako Ikastaruen egoitzen in-

guruan (Eibarren, Baionan zein
Iruñean) bazkaltzeko aukeria
emongo dau UEUk. Horretara-
ko bazkari-tiketak egunian ber-

BAIONAKO IKASTARUAK (Baionako Unibertsitatea IUT)

- "Tantra: maitasunaren atea". **Uztailak 5**
- "Etxeko erremedio naturalak: sendabelarrak, aromaterapia eta elikagai sendagarriak". **Uztailak 5**
- "Erresilientzia: une gogorretatik indartuta irteteko gaitasuna". **Uztailak 5**
- "Sexu-hezkuntza ikastaroa". **Uztailak 5**
- "Ipar Euskal Herria Gerlen artean. 1918ko garaipenetik 1940ko porrotera". **Uztailak 5**
- "Haur-masajea atxikimendua eratzeko mesedegari". **Uztailak 6**
- "Dantza tradizionala, bake-kultura elikatzen duen baliabide eraginkorra". **Uztailak 6**
- "Yoga-teknikak ikasle eta irakasleentzat". **Uztailak 7**
- "Buru-mapak: ideiak sortu eta antolatzeko teknika". **Uztailak 7**

IRUÑEAKO IKASTARUAK (Hizkuntza Eskola Ofiziala)

- "Trebetasun intelektuala: zer dira eta zertarako garatu ditzake?". **Uztailak 19**
- "Hezkidetzak: XXI. mendeko erronka". **Uztailak 19**
- "Harreman harmonikoa izateko komunikazio-trebetasunak: I. modulua". **Uztailak 19**
- "Modernitatearen auziaz: aro modernoaren proiektu filosofikoen giltzarriak". **Uztailak 19**
- "Lurralde-antolamendua Euskal Herrian: eredu aldaketaren beharra?". **Uztailak 19**
- "Testu analisirako PERL erremintak (tailerra)". **Uztailak 19**
- "Genero-politika egokiak: gogoetatik praktikatara". **Uztailak 19**
- "Emakumeen erotika tailerra". **Uztailak 20**
- "Arte laborategia: deskubritu/esperimentatu zure adierazpen plastikoa". **Uztailak 20**
- "Software Libre erabiltzen hasi nahi dut". **Uztailak 21**
- "Gizartea eta hezkuntza-eredua aztergai: ekarpenak libertarismotik". **Uztailak 21**
- "Kantua aitzakia: espresio tailerra". **Uztailak 21**
- "Heziketa emozionala: berdinen arteko harremanak hobetuz". **Uztailak 21**

LEKEITOKO IKASTARUAK (R. M. Azkue ikastola)

- "Euskal punk eta (des)eraikuntza nazionala: ukaziotik harago". **Uztailak 12**

EIBARKO IKASTARUAK (MARKESKUA)

- "Ingurugiroa ezagutu. GPS eta GIS baliabideak". **Ekaiñak 18**
- "Ipuinen funtzio pedagogikoa: balioak transmititzeko eta harremanak lantzeko". **Ekaiñak 28**
- "Elikagaien segurtasuna eta kalitatea XXI. Mendean". **Ekaiñak 28**
- "Android mugikorren sistema eragile libre". **Ekaiñak 28**
- "Sarea eta komunitate birtualen kudeaketa praktikoa: Community Manager-ak". **Ekaiñak 29**
- "Buru hotz, bihotz bero: kirolarientzat tresna psikologikoen lantegia". **Ekaiñak 30**
- "Bertsormena. Landu sormenaren alderdi komunikatiboa". **Ekaiñak 30**
- "Jendaurreko komunikazioan trebatzeko tailerra: III. Modulua". **Ekaiñak 30**
- "Araozetan Oinarritutako Ikaskuntza (AOI) metodologia eta IKT unibertsitateko irakaskuntzan". **Uztailak 12**
- "Galerak modu baikorrean bizitzen". **Uztailak 13**
- "Iraunkortasunerako euskal transizioak: herri-ekimenaren desafioak". **Uztailak 13**
- "HTML5: estandarra egungo web-etara egokitzen". **Uztailak 13**
- "Guraso/hezitzaile eta hauren elkar ulertzea: zigorrak, xantaiak eta mehatxurik gabeko harremanak". **Uztailak 14**
- "Interneteko marketina: web guneari errendimendu hobea aterata". **Uztailak 14**
- "Itzulpen gintzako teknologia laguntzaileak: joera berriak". **Uztailak 16**

tan erosi biharko dira, idazkari-
tzan. Bestalde, Baionako ikasta-
ruetan parte hartu nahi dabe-
nendako, Angeluko Gazte Etxea
aterpetxian lo egiteko eskintza
berezixa dago (lo egittia eta ar-
mozua 18'20 euro eguneko).
Edozelan be, 14 lagunendako
tokixa baiño ez dago eta intere-
sa dakenak ekaiñaren 20rako
emon biharko dabe izena, 0033
559 25 60 56 telefono zenbakira
deittu (Joseba) eta erantzungai-
lluan mezua lagata".




ZEUK AUKERATU

- GRATUITAKO EGOKITZAKO BERTSORMENAK **DOAN**
- GRATUITAKO EGOKITZAKO BERTSORMENAK **35€**
- EGOKITZAKO BERTSORMENAK **57€**
- MARKAKO EGOKITZAKO BERTSORMENAK **DOAN**

MULTIÓPTICAS
lehenengo zerbitzu optikotzat.

Bidebarrieta, 2 • Tel.: 943 20 05 22 • EIBAR

TEEN-
AUEA

Eibarko harrobetik irten eta Lemona taldearekin ari da jokatzeko Jon Aprain 2. B mailan. Foballari eibartarra oso pozik dabil talde bizkaitarrean eta foballean bidea egin nahi badu ere, ez ditu ikasketak albo batera uzten. Larrazabal Athletic-eko jokalaria ohiairen aginduetara dabil han Kaur Hezkuntzako ikasle hau.

JON APRAIZ, Lemona-ko foballaria:

“Ilusioa egin zidan Ipuruan jokatzekoak”

- Zer moduz joan da denboraldia?

Nahiko ondo. Goian amaitu dugu, play off-ean sartzeko hurbil, nahiz eta hori gure helburua izan ez. Maila pertsonalean nahi baino gutxiago jokatu dut, baina gustora amaitu dut denboraldia. Gainera, postu askotan jokatu dut eskuin hegalean, ezkerrean, atzealdean, aurrean... garrantzitsua da hori.

- Zer moduzkoa da 2. B mailako jokalaria izatea?

Haur Hezkuntza ikasten dihardut foballean jokatzeko gain; ez da erraza. Asteazkenetik astelehenetik entrenatzen gara eta asteburuetan partidua. Galizia aldean jokatu ahal izan dugu eta astelehen goizeko 06.00etan heltzen ginen. Pentsa, maleta desegin eta klasera zuzenean.

- Maila horretan foballak ez du jateko ematen?

Beno, guri hainbat hilabeteetako soldatak sor dizkigute eta ezjakinarena egiten dute taldeko arduradunek. Ohizkoa da hori gure mailako taldeetan eta orain krisiarekin gehiago.

- Zer moduz Lemoako taldearekin?

Urte bi daramatzat eta oso ondo. Taldekideak zoragarriak dira eta Eibarren ibili ziren Gurrutxaga, Rebollo eta Solaunekin jokatzeko aukera izan dut. Oso umilak dira, taldea bezala. Goi-mailan ibilitako foballariak dira eta euren umiltasuna ikaragarria da.

- Eibarko foball taldeetik irten-dako jokalaria zara. Buelta-zea gustatuko litzaizuke?

Bai, gustatuko litzaizuke. Pentsatzen dut etxeko jokalaria ez direla hainbeste baloratzen. Zaila da lehen taldera igotzea, izan ere, Eibarrek mailaz igotzeko taldea egiten du. Aurten Ipuruan jokatzeko aukera izan dut eta ilusio handia egin zidan. Lagunak, ezagunak... zeuden Ipuruan eta polita izan zen.

- Eta datorren urtean zer?

Ez dakit. Entrenatzailearekin berba egin behar dut eta dauken aukerak ikusi. Hori bai, ez daukat hemendik kanpo joateko asmorik, oraindik ikasten nabil-eta.

KATU



KALE

TABERNA

BIDEBARRIETA, 1

Radio Eibar

CADENA

SER

104,0 FM

Izadi
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1

Tel. 943 20 33 29



Giza Eskubideak egunero gogoratzeko

Ikasturtea amaitzean dute ikasleek, baina 2010-2011 kurtsuari begira gauza batzuk zehazten hasi dira arduradunak. Besteak beste, Eskola Agenda nolakoa izango den erabaki da. Gai nagusia 'Giza eskubideak' izango dira. Beti kontuan izan behar diren eskubideak.

Patxi Usobiaga, Multikirolak eta gure herriarekin zerikusia duten hainbat gai izan dituzte herriko ikasleek euren agendetan azken urteotan. 2010-2011 ikasturtean, bestetik, Eibar eta munduko beste edozein txoko batzen dituen gaiak osatuko du agenda: Giza Eskubideak.

Eibarko ikastetxeetan matrikulatuta dauden DBH edo Batxilergoko ikasleak edo 12 eta 18 urte bitarteko Eibarko gaz-

teen artean argazki-lehiaketa antolatuta zuten datorren ikasturteko Eskola Agenda diseinatzeko, eta eman dira jakitera irabazleak. Argazki bilduma onenaren saria Miriam Dominguez Gomez-ek lortu du 'Giza Eskubideak' lanari esker. Argazki solteen



mailan, bestetik, Iker Laka Barandikak 'Eskuak dira' bildumaren 1. eta 5. argazkiekin lortu du lehen saria.

Miriam eta Ikerren argazkiek ilustratuko dituzte, horrela, irailean Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleen agendak. Hala ere, hori ez da bikoteak jasoko duen sari bakarra. Izan ere, bilduma onenagatik 150 euro jasoko ditu Miriamek eta Ikerrek 50 euro argazki solteetan irabazleak suertatu diren argazki banagatik.



Goiz eta arratsaldeko saioetan ikusi ahal izan zen parte-hartzaileen trebezia. / MAIALEN BELAUSTEGI

Skate Eskola Urkizun

Urkizuko parkeak BBK Skate Eskola Tour 2010a hartu zuen joan den zapatuan. Gazte ugari bildu zen eta patinete gainean duten trebezia erakutsi ahal izan zuten. Trebezia handiegia ez zeukate nek monitore eta skater profesionalen aholkuak jarraitu ahal izan zuten patinete gainean ibiltzen moldatzeko. Bestetik, abilezia gehiago zutenek

euren estiloa hobetu ahal izan zuten Urkizun kokatutako pista eta bestelako oztopen gainean.

Goizean eta arratsaldean banatu ziren BBK Skate Eskola 2010eko ekintzak. Goizean 10 eta 16 urte bitartekoentzat eskola egon zen eta, bazkalostean, ginkana eta lehiaketak egin ziren, eta opariak jaso zituzten bertan parte-hartu zutenek.

agurain 2010

autobus
zerbitzua

Irteera 09.00etan
Ego Gaietik

Itzulera 19.00etan

9 euro

txartelak ...eta kitto!-n

ekainak 20

araba
euskara
gogo biziz

J.A. Mogel Ikastolako Guraso Elkarte / ...eta kitto! Euskara Elkarte

PARETATIK IGO BARIK
ASKOZ ESKURAGO DUZU

San Juan eguneko pilota jaialdiarekin gozatzea

LAU SARRERA ZURE ZAIN

Behoko datuak bete eta hilaren 14rako ...eta kitto!-ra (Urkizu, 11) ekartzen baduzu, ekainaren 24an Astelenan jokatu den pilota jaialdirako **LAGUN BIRENDAKO BINA SARRERAko zozketan hartuko duzu parte.**

IZEN-ABIZENA:

.....

TELEFONOA:

.....

10/VI/4 ...eta kitto!
724 zkia.

Dentistak

odontologia
biologikoa eta orokorra
terapia neurala

miren albistegi sojo

arragueta, 2 - bis B
t. 943 208 330


T. Anitua 16, behea
Tel. 943 20 73 57

AMAIA

HORTZ KLINIKA

ARAT Hortz Klinika

Hortz-osasuneko
profesional taldea
zure zerbitzura




eibartarren irribarrea pizten



Bista Eder

Bista Eder, 19 - behea
Tel. 943 70 00 82
943 20 84 75



- ✓ Implanteak
- ✓ Ortodontzia
- ✓ Zuritzea
- ✓ Hortz-estetika

grupo innova dental

Pedro Etxeberria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara
EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk.

Tfnoa: 943 20 72 17



GASTESI
Hortz-Klinika

Jesus M^a Gastesi - Ane Gastesi

Odontologia orokorra / Ortodontzia / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. eskuina 943 70 00 90



RPS 04/02

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk.

Tel. 943 208552

A. Zulueta, A. Murillo eta S. Sierra DOKTOREAK

ZERBITZUAK: Ortodontzia - Protesiak - Implanteak
Hortz-Estetika - Haurrentzako Tratamendua

OSASUN

BEGOÑA IZAGIRRE MENDIKUTE
DENTISTA

Untzaga 5 - 4. 943 70 23 85

EGUNERO



M^a Dolores Olaizola Doktorea

EIBARKO ZENTRO MEDIKOA

Urkizu, 13 (Orbeako Dorreak)
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706
www.marladoloresolaizola.com

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

RPS 336/05

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

UNTZAGA
hortz-klinika

egunero

Untzaga, 2 - 1. Eskuma
Tfnoa. 943 70 25 92

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI

ERREHABILITAZIOA



- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Logopedia
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Patronato
Eibarrés

Errehabilitazioa
eta **Fisioterapia**

ZENTRUKO SENDAGILEA: Ibarra doktorea

Urkizu 9 - behean

EGUNERO (08.00 - 19.30)

Tfnoak - 943 12 12 80 eta 943 12 03 58
Faxa - 943 12 03 58

Estetika klinika

abontza
clinica estetica

- Barizeak
- Kirurgia Estetikoak
- Dietetika eta Nutrizioa
- Gorputz Birmoldaketa
- Fotodepilazio Medikoa

Egunero, 6. behean - Telf.-Fax. 943 906 044
www.clinica-abontza.com

Fisioterapia

ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.

ARRAGUETA, 20
Tlf. 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com


FISIOTERAPIA
ENEKO MAILAGARAI
901 kolegiatu zbkia.

San Agustin, 2-4 - M lokala
Tel. 622 14 58 58

FISIOTERAPIA
- fisioterapia
- osteopatia
- errehabilitazioa

Manu Sánchez FISIOTERAPEUTA

Juan Gisasola, 14
Telefonos: 943 12 70 78



GIDA

Kirol medikuntza

KIROL MEDIKUNTZA

Indartu
 ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA

- Odol analisiak
- Elektrotterapia
- Fisioterapia
- Urgentziak
- Esfortzu probak
- 3. adinekoen mantenimendua
- Kontsulta medikoak
- Errekonozimendu medikoak
- Masaje terapeutikoa
- Kirol masajeak

ERA GUZTITAKO MUTUA ETA ASGURUEKIN KONTZERTATUA

Diputazioa, 8-10 48260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 - 943 17 21 16
 Faxa: 943 17 21 12 • e-maila: indartu@euskatnet.net

Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
 124 kolegiatu zenbakia



HELBIDE BERRIA
 T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93

Psikologoak

AROR
 PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA
 ----- (Ume eta helduendako) -----

Ana Artamendi eta Beatriz Ortueta

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Dislaliak
- Degluzio atipikoa
- Hizmoteltasuna
- Eskola arazoak

T. Etxebarria 10 - 6. ezk. (EIBAR) Tel. 943 20 27 15
 Artekalea 30 - 2. B (DURANGO) Tel. 94 681 90 79

Okulistak


 Centro de Oftalmología Avanzada

- Jose Alberdi Alberdi

OKULISTAK
 EGUNERO ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuartea
 Tfnoa: 943 20 19 82

BIDEBARRIETA, 48
 EIBAR
 943 203050

ERDIKO KALE 54
 ARRASATE
 943, 799746

PODOLOGOA
 Erdiko Klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
 Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
 Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

UME ETA HELDUENDAKO
 PSIKOLOGIA
 KABINETEA

 **Arrate Garitaonandia**

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO
 TRATAMENDUAK

Bidebarrieta, 27-B (3. ate) 943 20 22 66
 a_garitaonandia@terra.es


 Clínica Oftalmológica
RECALDE
 Oftalmologi Klinika

Plaza Barria, 2 - 2º
 Tfnoa: 943 201 844
 www.clinicarecalde.com

PODOLOGOA

Maidor Lopez Etxebarria



Arragueta 2 Bis-B, Behea C
 Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

Psikologia klinika eta
 Psicoterapia zentroa



Oscar Mondragon Lili

Urkizu, 13 - behea
 Telf. 943 206823 eta 686 859023

 **PODOLOGO**
 T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
 (Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Radiologia

MADINA RADIOLOGIA

- Mamografiak
- Dentsitometriak (osteoporosi ikerketa eta balorazioa)
- Hertz-scanner 3D-etan (implanteak ezarri aurreko hezur baloraziorako)

TRAUMATOLOGOAK: Azkarate eta González Bosch doktoreak
 TRATAMENDUAK hazkuntza faktoreetan aberatsa den plasmarekin

Toribio Etxebarria, 4 - 1. ezk. 943-202857

Hemen zure tokia izan nahi baduzu deitu 943-206776 telefonora

San Juan pelota torneoaren abian da txikien artean

AURREKO ASTEAN IPINIZEN MARTXAN AURTENGO SAN JUAN PILOTA TORNEOAREN, GAZTEENEN ARTEAN

30etik gora partiduak jokatu behar dira baituzte guztiak guztien aurkako binakako ligaxkan. Lehenengo fase horretako partiduak Kiroldegiko frontoian jarraituko dira jokatzeko eta finalak, bestalde, Astelenan (hilarren 19an). Seniorretan (finalerdiak 8an eta 15ean jokatu dira), Klub Deportiboko Etxaniz

eta Egañarekin, Arribillaga eta Arrizabalaga elgoibartarrak jardungo dute lau eta erdiaren barrukoa zeinek irabazi lehiatzen. Eta binaka honakoei osatuko dituzte bikoteak: Unamunzaga, Lizarralde, Portu, Larreategi, Arrillaga, Agirrebeña, Karmona eta Pérez. Martitzeneko finalerdiak 19.30etan hasiko dira Astelenan: Etxaniz vs Arribillagaren ondoren Arrillaga-Lizarralde eta Karmona-Pérez norgehiagokarekin.



Eibarko talde biak euren arteko partidua amaitu ondoren.


Urkioko nesken foball torneoaren Debara joan zen

GIRO HANDIA IZAN ZEN UNBEN URKIKO TORNEOAREN 8. EDIZIOAN eta Eibar KEko talde biak 3. eta 4. postuen lehiatzen borrokatzearekin konformatu behar izan zuten. Mutrikuk 3-1 irabazi zion Eibar A taldeari eta Amaiak Bat-ek 2-1 Eibar B-ri. Finalerdiak, husna berdindu eta gero, Amaiak Bat Mutriku baino gehiago izan zen penalti jaurtiketetan eta, 3. posturako lehiatzen, Eibar B-k irabazi zuen (2-0).

Galdaramiñoko mendi lasterketaren II. edizioa

DOMEKAN, URKIKO JAIEN BARRUAN, IGOERA HORREN BIGARREN EDIZIOA IZANGO DA JOKOAN, 12.30etan hasita. Iaz estreinatu zen probak, gainera, aurtengo ordubete lehenengo hasiko den mendi-martxa ere izango du. 7'6 kilometroko betetzeko izen-ematea doanekoa da eta irteera eta helmuga Urki kalean izango ditu, Cepa

tabernaren parean, aurretik 510 metroko desnibela gainditu ondoren. Iazko edizioan, Joseba Altuna azpeitiarra (37'39") eta Pilar Arriola elgoibartarra (52'28") izan ziren garaileak.



JoserAuto ligan ere nagusi izan da.




JoserAuto-Tecnografik foball-zaletuen Kopako finalean

BIHAR, GOIZEKO 10.30ETATIK AURRERA, JOSERAUTO DENBORALDIKO BIGARREN TXAPELAREN BILA zelairatuko da Unben; liga amaiera bikaina izan duen Tecnografik-ek egingo dio aurre. Finalerdiak, JoserAuto erraz nagusitu zitzaion Esmorgari (4-1), eta

Tecnografik askoz ere larriago ibili zen finalerako urratsa emateko, Alkidebarekin bana berdindu eta gero penaltietan nagusitu baitzen. Eguerdiko 13.00etan, berriz, denboraldiko sari guztiak banatuko dira eta luntx-a egongo da bertaratuendako.


Usobiaga bigarren Espainiako kirol eskaladan

BIDE ONETIK HASI DU ESPAINIAKO KOPA EIBARKO ESKALATZAILEAK, AZKEN ALDIAN IZANDAKO LESIOA ATZEAN lagatzen diharduen seinale. Valladoliden jokaturako estreinako proban, seniorretan Ramon Julián izan zen bakarra Patxi Usobiagari irabazten eta Gorka Karapeto euskalduna 5. postuan sailkatu zen.



Gipuzkoako hiru-txirlo txapelketaren finalak Ezoizian

ORAIN ARTEKO JARDUNALDI GUZTIETAN, PARTIDAK ARRATSALDEKO 17.00ETAN HASI BADIRA ERE, biharkoa eguerdiko 12.30etan hasiko da. Gipuzkoako XLI. hiru-txirlo bola txapelketako azken jardunaldia da Sorluzeko Ezozian auzoan jokatu dena eta, behin azken jardunaldia amaituta, sailkapenak erakutsiko dituen parrekoak erabakiko dira. Sailkapenean apenas aukerarik duten Asola-Berrikoak, Elgoibarko San Miguelekoak izan baitira nagusi edizio honetan. Ohizkoa denez, omenaldirako tartea ere izango da eta oraingoan ibilbide luzea egin duen Rafael Corcherok (argazkian) jasoko du.






Eibar-Ontinyent erabakigarria etzi

DOMEKA ARRATSALDEAN, 19.30-ETATIK HASITA, EIBAR KE-K IGOERAKO PROMOZIOKO ITZULERAKO PARTIDUA jokatuko du Ontinyent-en aurka. Neurketak azken kanporaketarako txartela zeinek jasoko duen erabakiko du eta, horregatik, zaletuen bultzada beharko du Manix-en taldeak. Partiduaren aurretik hainbat ekitaldi antolatu ditu Eskozia la Bravak giroa beretzeko (**informazio gehiago 20. orrialdeko agendan**).

Padel txapelketa azkarra bihar Unben

TXAPELKETA DINAMIKOA, DOANEOA ETA DIBERTIGARRIA JOKATZEKO AUKE-RA berria eskaini nahi izan du Eibarko Kirol Patronatoak lehenengo antolatu den padel txapelketa azkarrarekin. Bihar 10.00etan hasiko da eta bikote guztiek denek denen aurka jokatuko dute, 15 tantoetarako partidetan eta azken fasearekin. Gainera, hurrengo denbo-



raldiari begira, asmoa dute lagunarteko txapelketa antolatzeko jendea prest badago.

Irujo eta Ruizen artekoa Astelenan

PILOTA PROFESIONALEKO BURUZ-BURUKO TXAPELKETA-KO FINALERDIA jokatuko dute domekako jaialdiko partidu nagusian Juan Martínez de Irujok eta Patxi Ruizek: horko irabazleak finala jokatzeke txartela eskuratuko du. Jaialdia honako partiduekin osatuko da: hasteko, Olazabal-Zubieta Idoate-Pascualen aurka eta, amaitzeko, Apezetxea-Galartza Ongay-Cecilioren kontra. Bestalde, Sanjuanetan Retegi Bi eta Barriolaren buruz-burukoa izango da.

Defentsa pertsonalerako klaseak

DOMEKA GOIZEAN EMANGO DITUZTE KALAMUA KLUBEKO LOKALETAN EGINGO DIREN ATE IREKIKO JARDUNALDIAN.

Klaseak 10.30etatik 13.00ak arte emango dira, Julio Gallego eta Manu Agirreren eskutik, biak ere emakumezkoen defentsa pertsonalerako gerriko beltzak. Bestalde, Nekane Muguruza jiu-jitsuko Espainiako txapeldunari harrera egin zitzaion udaletxean (argazkian) eta grabadorearen bola entregatu.



Finalista Eguna egingo da domekan Arraten

URTEROKOARI JARRAITUZ, DOMEKAN KLUB DEPORTIBOKO FINALISTA EGUNAREN EDIZIO BERRIA izango da Arraten. Bertan egingo den bazkarian parte hartzeko aukerarik badago oraindik, klubeko bulegoetatik gaur 19.30etatik 20.30etara pasatuta. Aurretik, mendiko ibilaldia, roll-eski igoera, pilota partiduak eta mendiko dominen banaketa egingo dira. Mendi ibilaldia

08.15etan abiatuko da Deporetik eta Santa Kurutz, Parlamentua eta Kalamuatik Arraten amaituko da, eta eski taldekoek egingo duten roll-eskia Itzioko parketik irtengo du 09.30etan. Caelo Memorialaren pilota partiduak 12.00etan hasiko dira Arrateko frontoian, 12.30etan mendiko dominak banatuko dira eta handik bi ordu, 14.30etan, egingo da bazkaria.



Nicole Cookek etapa bi irabazi zituen iazko edizioan.

Debabarrena Kirolgi taldea Emakumeen Biran

DATORREN EGUENEAN, HILAREN 10-EAN, HASIKO DA ETA DOMEKAN, 13-AN, AMAITUKO Emakumeen Biraren XXIII. aldia. 23 talde eta 138 txirrindulari ibiliko dira errepidean; taldeen artean, lau euskaldunak izango dira eta euretako bat Debabarrena. Eibarko taldean Ane San-

testeban izango da buru, zaila izango badu ere munduko onenen aurrean (Judith Arndt, Claudia Hausler, Nicole Cooke, Tiffamy Cromwell, Emma Johansson) nabarmentzea. Lau egunetan bost etapa egingo dituzte, horietako bat Elorriotik Elgetarainoko kroinoigoera.

2007an Ikastenen ekimenez sortu zen Kaleetan Kantuz. Ordutik hona herriko hainbat ekintzetan izan dira kaleak girotuz eta ekainaren 12rako 'Eibarren Kaleetan Kantuz' antolatu dute. Bailarako mundu guztia gonbidatuta dago ekitaldira.



ELISA LOPEZ, Kaleetan Kantuz:

"Jendea hunkitu egiten da gurekin"

- **Hilaren 12rako 'Eibarren Kaleetan Kantuz' ekimena antolatu duzue. Zer da?**

Hasieran koruen kontzentrazioa egitea zen asmoa, baina ez gara koru bat; beraz, pentsatu genuen jendea Eibarko kaleetan abestera gonbidatzea, beste barik. Ez da inongo erakusketarik: bailarako jendea bildu eta kalean abestuko dugu. Debabarrenera mugatu gara jende gehiago hartzeko ez dagoelako lekurik herrian.

- **Zein da ekimen hau antolatzeko arrazoia?**

Kaleetan Kantuzen egiten duguna sustatu nahi dugu herrian eta bailaran. Oso ondo pasatzen dugu, armonia onean ibiltzen gara, entzuten gaituen jendea poztu eta emozionatu egiten da, eta hori igorri nahi diegu helduei eta gazteei.

- **Zein ekintza antolatu dituzue ekainaren 12rako?**

Goizean, 11.00ak aldean, Untzagan batuko gara eta alkatetik harrera egingo digu. Kopautxo bat hartu eta gero, talde bat Amaña, Ipurua eta Juan Gisasolatik ibiliko da kantuan, eta bestea Toribio Etxeberria, Anbulategia, Ibarburutze, Urkizu eta Bidebarrietatik. 14.00etan Untzagan batuko gara berri eta berriro abestu eta gero Astelenan bazkaria egingo dugu 18.00ak arte. Egun osoa kantuan emango dugu.

- **Edonork har dezake parte?**

Herri askotako jendea bilduko da eta oraindik bazkaltzeko txartelak hartzeko aukera dago 15 eurotan (Kaleetan Kantuzeko azken entseguan, hilaren 10ean, edo Untzagako Jubiletxean martitzen eta eguenetan 12.00etan. Bestela, 605711794 edo 943701534 telefonoetara deitu). Jendea oso ondo hartuko dugu eta, ondo irtenez gero, errepikatu egingo dugu.

- **Nolakoa abestiak entzun ahal izango dira?**

Herri-abestiak, inongo zailtasunik ez egoteko eta aurretik entsaiatu ahal izateko. Ahots batean abestuko dugu eta edonor etorri daiteke kalean gurekin abestera. Abesteko denok balio dugula erakutsi nahi dugu. Gainera, gizonak ere etortzera animatu nahi ditugu, guxtiago ausartzen baitira.

- **Nolakoa da Kaleetan kantuz-en 'osasuna' gaur egun?**

Entseguetara 60 bat lagun joaten gara eta kaleetan 100 bat ekiduten dugu. Eguraldia oso txarrarekin ere, han biltzen gara abestera. "Zoratuta gaude?", galdetzen dut, eta "etortzea ez da oso garrantzitsua guretzat?", erantzuten didate. Bestetik, hilean birritan entseiatzen dugu San Andres parrokiako kaleetan (hileko 2. eta 4. eguenetan) eta behin irtetzen gara kalera (hileko 2. zapatuan).



Aurreko zapatuan Haur Hezkuntzako olinpiadak ospatu ziren.
/ MAIDER ARANBERRI

Kirola Euskaraz Bizi, bihar Iturburun

AURREKO ASTEBURUAN IKASTOLAKO HAUR HEZKUNTZAKO TXIKIAK IZAN ZIREN PROTAGONISTA

Iturburun ospatutako Olinpiadetan eta bihar, berriz, nagusien txanda izango da, XIV. Kirola Euskaraz Bizi jaialdian. Zapatu goizean hasiko da Iturburun kirola eta euskara ardatz dituen jaialdia, urteroko martxari jarraituta. 08.30etan kirol probetan parte hartuko dutenek argazkiak ateratzen hasiko dira eta, jarraian, kirol probei ekingo diete: eskusaski-pelota (DBH 6. maila), desfilea, pilota, foballa, saskibaloia, patinajea, bolei-hockey-sokasaltza, sokatira (DBH), ae-

robotoia, abiadura eta erreleboak goizean izango dira eta arratsaldean, 15.30etatik aurrera, foballa (LH azkenak), txingaramatea, sokatira, kaskarabatzea eta krosa jokatu dira. 18.00 sariak banatu eta, azken agurraren ondoren, jaialdia amaitutzat emango dute. Urteroko moduan, jendeari automobila etxean laga eta goizetik martxan egongo den autobus zerbitzua erabiltzeko dei egiten diote antolatzaileek. Bestalde, Juan Antonio Mogel ikastola sortu zela 50 urte bete direla eta, HH eta LHko ikasleek grabatutako CDak 10 eurotan salgai egongo direla gogorarazi nahi diete bihar Iturburura joateko asmoa dutenei.



Mendi ibilaldia gaztetxearekin

EKAINAREN 13-RAKO (DOMEKA) MENDI IRTEERA ANTOLATU DU TALLARRA GAZTETXEAK:

Deban hasi eta Zumaiaraino, itsasertzetik ibilaldia egingo dute. Irteera goizeko 09.45etan izango da, Ardantzako tren geltokitik abiatuta: Debaraino trenez joan eta bertatik Zumaiaraino 4 bat ordutan joatea daukate aurreikusita; tartean bainua hartu eta paisaiatzeko aukera aprobetxatzeko asmoa dute. Egun osorako irteera izango denez, janaria etxetik eramatea gomendatzen dute antolatzaileek. Bestalde, eurretako batzuek txakurrak eramango dituztela aurreratu dute eta, beste norbaitek asmo bera izatekotan, tallarra@squat.net helbidera idazteko eskatzen dute.

...eta kitto!-k zabalduko du Garagardo Feria

MARTITZEN ARRATSALDEAN, 19.00-ETAN ZABALDUKO DA EIBAR RUGBI TALDEAK URTERO ANTOLATZEN DUEN GARAGARDO FERIA, Untzagan ipiniko den karpan. Hilaren 13ra arte egunero zabalduko den azokan, ohizkoa denez, hainbat garagardo mota dastatzeko aukera paregabea eskainiko dute eta, nola ez, garagardoari laguntzeko jatekoa ez da faltako. Feriaren inaugurazio ofizialerako urtero herriko talderen bat gonbidatzen dute antolatzaileek, omenaldi gisara kupela zabaldez, eta feriaren VIII. Edizio



Garagardo Feriaren iazko inaugurazioaren irudia. / EKHI BELAR

honetarako ...eta kitto! Euskara Elkartea aukeratu dute. Euskara Elkarteko zuzendaritzako ordezkariak izango dute lehenengo garagardo kupela zabal-

tzeko ohorea. Bestalde, egue-
nean, hilaren 10ean, zuzeneko musikarekin gozatzeko aukera izango da, Mongo-k eskainiko duen kontzertuari esker.

Mintza Eguna domekan Arrasaten

AURTENGO MINTZA EGUNA ARRASATEN OSPATUKO DA, GOIZEAN HASI ETA ARRATSALDERA ARTE iraungo duen egitarauari jarraituta. Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak antolatutako jaiari hainbat herritako mintzapraktika egitasmoetan parte hartzen diharduten lagunek hartuko dute parte, tartean ...eta kitto! Euskara Elkarteak kudeatutako Berbetan programako kideak. 11.00etan Biteri plazan ongietorria egingo zaie jaira joandako guztiei eta, hamaiketako hartu ondoren, eguerdian ibilaldi gidatua egingo du taldeak. 13.30etan kalejira hasiko da eta, ondoren, herriko plaza nagusian elkarrekin bazkalduko dute. Ondoren, aurtengo omenduei sariak banatuko zaizkie eta, agurtu aurretik, Kataia taldeak eskainiko duen erromerian dantzan jarduteko aukera izango da.



Euskal Eskola Publikoaren Jaia

DOMEKAN OSPATUKO DA AMURRION (ARABA) ETA AIARA BAILARAN EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN 19. JAIA, "Euskal Eskola Publikoa geroa landuz" lemapean. Jaialdia hartuko duen eremua 8 gunetan banatuta egongo da eta txikienentzat antolatutako jarduerak gehienak (puzgarriak, tailerrak...) eskola bietan pila-tu dituzte antolatzaileek, Horrez gain, egun osoan musika, dantza eta bestelako ikuskizunak eskaintzen joango dira hainbat talde. Egitarau zehatza eta bestelako informazio erabilgarria www.ehige-jaia.org webgunean kontsultatu daiteke.

Cielito-ren kontzertua Elgoibarren

DOMEKAN, EKAINAREN 6-AN, 12.30-ETAN KONTZERTUA ESKAINIKO DUTE CIELITO MUSIKA BANDAKOEK Elgoibarko Herriko Antzokian, Carlos Sánchez-Barbak zuzenduta. Aurretik, 11.00ak aldera kalejira egingo dute, udaletxeko plazatik hasita. Kontzerturako prestatu duten egitaraua honako piezek osatzen dute: "Don Felix" (pasodoblea, C. Sánchez-Barba), "La Dolorosa" (bilduma, J. Serrano), "Exodus" (soinu banda, E. Gold), "Betioskorri" (bilduma, Oskorri), "El último mohicano" (soinu banda, T. Jones) eta "Macarena" (mamboa, P. Prado).



laburrak

Bertso bazkaria Deporren

Ekainaren 12rako bertso bazkaria antolatuko dute Hankamotxak bertso eskolakoek. 14.00etatik aurrera Arkaitz Estiballes, Beñat Ugartetxea eta Mikel Arrillagak jardungo dute bertsoan, Miren Zamakola gai-jartzailearen aginduetara. Horrez gain, Eibar-Plaentzia desafio begibistan dutela aurreratu digute: hilaren 13an Plaentxiako Ezozki auzoa egingo dute joaneko saioa eta itzulerakoa 19an egitea dago aurreikusita, Montekan. Kasu bietan bazkalosteko saioak izango dira.

Ikasturte amaierako dantzak

Biraka Dantzak ikasturte amaierako jaialdia aurkeztu zuen atzo Coliseoan eta gaur, 20.30etan, bigarren emanaldi bat eskainiko du. 4 eta 25 urte bitarteko 130 dantzarik hartuko dute parte ikuskizunean eta garuko saioan Elgoibarko talde gonbidatuak koreografia bi eskainiko ditu. Bestalde, hurrengo ikasturterako izen-ematea zabalik dagoela gogorarazi dute (ekainaren 20ra arte). Datorren astean, berriz, eguazten, eguen eta barixakuan, 20.30etan Eibarko Dantza Garaikideko dantzarien ikuskizunak hartuko ditu Coliseoak.

Hitzaldia eta batzarra Kultun

Arrate Kultur Elkarteak hainbat ekitaldi antolatu ditu datozten egunotarako. Batetik, datorren zapatuan Pozalaguako kobazuloak ikustera joateko txangoa egingo da. Hilaren 17an, berriz, Arrate Kultur Elkartearen urteko batzarra deitu dituzte bazkideak (19.30etan bigarren deialdian). Besteak beste, elkartearen lokalaren hobekuntza jarduteko asmoa dute. Eta hilaren 18rako Euskal Memoria Fundazioaren eskutik hitzaldia egitea dago aurreikusita.

Krisi ekonomikoari aurre egiteko neurriak hartzen dihardute ekonomian eskumena duten aktore guztiek. Horren aurrean, Eduardo Garcia Euskadiko CCOOko Zuzendaritza Batzordeko kide, eta pentsio eta Gizarte Segurantzako teknikariak pentsioen murrizketei buruz jardungo du Portalean ostegunean 19.00etan.

EDUARDO GARCIA, pentsio eta Gizarte Segurantzako teknikaria:

- Zeintzuk izan dira pentsioen gainean Gobernuak hartu dituen neurriak?

Oraingoz ez du neurririk hartu. Kezkagarriak diren proposamenak daude Gizarte Segurantza eta elkarrizketa sozialaren gainean: kotizazio urteak igotzea pentsioa edukitzeko, jubilatzeke adina 65 urtetik 67ra igotzea, pentsioen kalkulua egiteko urte gehiago hartzea... Hala ere, elkarrizketa sozialetik at, Eusko Jaurlaritzak onartu dituen doikuntza neurrietan, aldebakarreko erabakian eta zeuden akordioak moztuz, bai egon dira Gobernu Espainiarraren neurriak.


- Nolako eragina izango dute neurri horiek herritarrengan?

Errelebu-kontratuarekin euren enpresetan jubilazio partzialaren pentsiora heltzeko asmoa zuten langileek egoera gogorra goetan egin beharko dute hori. Adibidez, 60 urterekin egiteko eskubi-dea eduki beharrean, 1967ko urtarrila baino lehenago kotizatu ez duen norbaitek 61 urterekin egin beharko du; bere lanaldia- ren %85arekin partzialki jubilatuzitekeen langilea, orain %75arekin jubilatuz ahal izango da gehie- nez, eta, ondorioz, plantilak ezin izango dira gaztetu, ezta berritu

etorkizun hurbilean; pentsionis- tek, bestetik, erosteko ahalmena galduko dute.

- CCOOko Zuzendaritza Batzordeko kidea zara. Zer pentsatzen du sindikatuak neurri horien aurrean?

Gizarte Segurantzaren gainean gauza bat argi dauka CCOO- k; 1995etik ikerketak egin ditugu erakutsiz sistema publikoa siste- ma publiko bideragarria dela eta etorkizunean arazo barik finan- tzatu daitekeela. Gizarte Segu- rantza historiako bere momentu ekonomiko onenean aurkitzen da, eta hori krisi ekonomiko han- diko momentuak bizi ditugula. Hori bai, egoera hau abaguneko momentua da eta bihar aldatu egin daiteke, beraz, neurriak har- tu behar dira maila sozialean etorkizuna bideragarria izateko. Guk pentsio gehiago ordaindu beharko ditugu, denbora gehia- goz eta prezio altuagoan; izan ere, pentsioetara sartzen den jendea nagusiagoa da, daude- nak urte gehiago bizi dira eta bat- zatzbesteko pentsioa gora doa. Horri erantzun argia eman behar zaio, baina ez bakarrik gastua- ren murrizketan, sarreretan eman daitekeelako ere. Kotiza- zioen, Gizarte Segurantzaren



iruzurren eta abarren gainean neurriak hartu behar dira. Finan- tzazio iturrien banaketa egin eta Erreserba Fondoa behar denean erabiltzen uzten badugu (65.000 milioi eurokoa dago), ez da zer- tan gastuen murrizketen gainean neurriak hartu behar partzialki ez bada. Horrela, uste dugu Gizarte Segurantzaren sistema publikoa bideragarria dela, ez duela ara- zorik eta jendea lasai egon behar dela, hauek ez baitira gizarte on- gizatea bonbardatzeko neurriak.

- Antzeko neurria gehiago har- tuko direla uste duzu?

Aurreko egun batean Nazioar- te Diru Funtsak esan zuen gus- tätzen zitzaikiola jubilatzeke adi- na luzatzeko hartutako neurriak. ECOFIN eta Europako arlo eko- nomikoari igorritako txostenean argi agertzen da, politikari eta sindikatu- ei esandakoarekin alde- ratuz, jubilatzeke adinaren neu- rrien proposamena mantentzen

zutela, beraz, hori egitea pentsa- tzen jarraitzen dute. Nazioarteko finantza-merkatuak aseezin- ak dira eta eredu soziala 'argaltze- ko' neurriak hartzeko bultzatuko dute Gobernuak. Horrela, argi egon behar gara behar diren mo- bilizazioak egiteko.

- Ekainaren 8rako greba egu- na deitu duzue.

Administrazio publikoaren gainean egingo den greba au- rreikusten da egun horretarako Gobernuak hartu dituen azken neurrien harira. Baina hau ez da hor geratzen eta gu greba oro- korraren kodeetan gabiltza elka- rrizketetan. Herritar guztiak bat- zen dituen greba egin nahi du- gu Gobernuaren neurri eta moz- keta hauei erantzuteko, hartu di- renetik at elkarrizketa sozialaren arloan egoera oso delikatua de- lako lan merkatuari dagoikonez.

ELKARRIZKETA OSOA
WWW.ETAKITTO.COM webgunean

ELKARTEGINTZA ETA PARTE-HARTZE SOZIALA


UDALEN PAPERA, JARRERAK ETA BALIABIDEAK

ITZUALDIA: Ostia 17, ordea, 19:30-20:30ean
Portalean, ERM


Elkarrekin Fundazioa

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunena bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, ALAITZ, maiatzaren 29xan sei urte bete zenduazena-eta. Famelixaren partez.




Zorionak, XABI, maiatzaren 22xan sei urte egin zenduazelako. Patxo potolo bat aitaxo, amatxo eta Malenen partez.



Zorionak, ESTHER Losada Novoa, gaur hiru urte betetzen dozuz-eta. Aitta eta amaren partez.




Ongi etorri, ADEI, maiatzaren 26xan etorri zifan-eta. Osaba, izeba eta famelixaren partez.




Zorionak, LEIRE Larrañaga Ros, atzo lau urte egin zenduazena-eta. Famelixaren partez.




IRATI Arizmendiarieta Martín. Zorionak, printzesa, 2xan sei urte egin zenduazena-eta. Muxu haundi bat gurasuen partez.




Zorionak, ANDONI, martitzenian 11 urte egin zenduazena-eta. Famelixaren partez.




Zorionak, INES De Miguel, hiru urte betetzen dozuzelako gaur. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, IZARO Bereziartua Santos, bixar urte bi egingo dozuz-eta. Patxo bana aitxixa, amama eta izekoren partez.



Zorionak, MADDI, zure zazpigarren urtebetetzian. Asko maitte zaittugu, lazтана. AAM.



Zorionak, IZARO, domekan hiru urte beteko dozuz-eta. Muxu potolo bat famelixa guztiaren izenian.

zinea Coliseoan

4an, 20.30etan; 5ean, 19.45 / 22.30etan;
6an, 20.00etan; 7an, 20.30etan.

"La nana"


Zuzendaria: **Sebastian Silva**
Aktoreak: **Claudia Celedón, Alejandro Goic, Catalina Saavedra, Mariana Loyola**



Rakel emakume itxiak 23 urte daramatza Valdés familiarendako biharrean. Hauek beste inude bat kontratatuko dute eta Rakelek arriskuan ikusiko du bere tokia. Lucy kanpotik etorritako beste emakume batek Rakelen jarrera aldatuko du.

"La última canción"

Zuzendaria: **Mike Newell**
Aktoreak: **Miley Cyrus, Greg Kinnear, Kelly Preston, Liam Hemsworth**



Banaturtako aita eta bere alaba nerabea Estatu Batuetako hegoaldeko itsasoaldeko hiri txiki batean dira, alabak Nueva York-en izatea nahiago izango zuenean. Musika izango da bien arteko harremana hobetzeko aurkituko duten aukera bakarra.

"El pastel de boda"

Zuzendaria: **Denys Granier**
Aktoreak: **Jérémie Renier, Clémence Poésy, Danielle Darrieux, Aurore Clément**



Bérençère eta Vincent burgesiaren tradizioari jarraituz ezkonduko dira. Ohituraren arabera, senideak eta lagunak mendian elkartuko dira udaberriko egun zoragarrian. Egun alai horretan, baina, odol-loturak ez datoz bat bihotz-loturekin.

JAIOTAKOAK

- Yassin Aghbalou. 2010-V-18.
- Adei Zabala García. 2010-V-26.
- Malen González Alfonso. 2010-V-26.
- Eñaut Ezpeleta Rodríguez. 2010-V-28.

HILDAKOAK

- Alejandro Gisasola Santos. 88 urte. 2010-V-26.
- Justa Fuerte Sandoval. 82 urte. 2010-V-26.
- Felix Ormaetxea Gisasola. 64 urte. 2010-V-26.
- Armando Abarrategi Garitaonandia. 73 urte. 2010-V-27.
- Angela Etxebarria Arrillaga. 94 urte. 2010-V-29.
- Jose Ramon Beckmann Orozko. 58 urte. 2010-V-29.
- Marini Errekalde Gantxegi. 52 urte. 2010-V-31.
- Isabel Lekunberri Kaperotxipi. 98 urte. 2010-VI-2.

horoskopoa

ARIES

Badakizu zerk egiten zaituen zorientsu eta horren bila ibiliko zara. Aurkitu edo ez aurkitu, zure esku dago; bidea badakizu behintzat.

TAURUS

Zure eskaerek ez dute erantzunik izango. Beraz, aurrera edo atzera egin jakin ezinik ibiliko zara. Sartu presio pixka bat.

GEMINI

Erabakiak hartzeko momentua iritsi da. Lehenagotik asko pentsatu badituzu ere, zaila egingo zaizu hauek jakitera ematea.

CANCER

Dena ondo, arazo barik. Kezkatuta ibili zara kontu batekin, baina ez da inolako gauza txarrik gertatu. Orain aurrera begiratu ahal izango duzu.

LEO

Lagun artean oso gustora ibiliko zara eta eurek egotea zeinen garrantzitsua den konturatuko zara. Ez dago gaizki noizean behin horretaz konturatzea.

VIRGO

Aldaketak arlo ekonomikoan. Ezustean hainbat gauza berri gertatuko dira eta zure poltsikoak ederki ordainduko ditu aldaketok.

LIBRA

Udaberri nahasi doa eta zure osasunak jasango ditu aldaketak guzti hauek. Pare bat egun eta berri forma onean egongo zara.

SCORPIUS

Sasoi berria hasi da zuretzat. Amaiera emango diezu hainbat konturi eta helburu berriak egongo dira zure ikusmiran.

SAGITTARIUS

Inoiz baino ederrago ikusiko duzu zure burua. NAN-a eta bestelakoetarako argazkiak egiteko momentu aproposa izan daiteke.

CAPRICORNIUS

Dena alde izango duzu hurrengo egunotan. Gauzak nahi duzun moduan aterako zaizkizu eta zure umorean eragina izango du horrek.

AQUARIUS

Ez duzu beste biderik aurkituko arazoa konpontzeko eta inork ere ezingo ditu lagundu. Saia zaituz ondorioak ahalik eta leunenak izaten.

PISCIS

Munduko injustizien aurrian bereziki sentsibilizatuta egongo zara eta barrenean nolabaiteko egonezina sortuko zaizu.

Barixakua 4

ELKARGUNEA

18.00.- Belaunaldien arteko II. Elkargunea: dantzak, jolasak, eskulanak, txokolate-jana... Karmen kaleko 6an (Beheko Tokia-ren parean).

URKIKO JAIAK

19.00.- Jaien hasiera.
19.15.- Buruhandiak, Irulitxa fanfarrearen eskutik.
19.30.- Herri-jokoak, Arrateko Andra Mari ikastetxean.
19.30.- Nagusiei omenaldia, Cepa tabernaren parean.
20.00.- Herri-txikiteoa, Irulitxa fanfarrearen eskutik.
23.00.- Rock kontzertua: Kilonbo Tribe + Kaotiko (00.00etan). Arrateko Andra Mari ikastetxean.

DANTZA

20.30.- Biraka dantza taldearen emanaldia. Coliseoan.

Zapatua 5

KIROLA EUSKARAZ BIZI

08.00.- Garraio zerbitzuaren hasiera (Untzaga eta Urkizutik Iturburu).
08.30.- Argazkiak.
09.00.- Esku-saski-pelota (DBH 6. maila).
10.00.- Desfilea.
10.30.- Pelota, foballa, saskibaloia.
11.00.- Garraioa zerbitzua (Ego Gain-Iturburu).
11.15.- Patinajea.
12.00.- Bolei-Hockey-Sokasaltua.
12.30.- Garraio zerbitzua (Ego Gain-Iturburu).
12.30.- Sokatira (DBH).
12.45.- Aerobitoia + soinujoleak (A. Jainaga).
13.30.- Garraio zerbitzua (Ego Gain-Iturburu).
13.30.- Abiadura eta erreleboak.
14.00.- Atsedernaldia.
15.30.- Foballa (LH azkenak).
16.30.- Txinga-eramate, sokatira, kaskara-biltzea.
17.00.- Krosa.
18.00.- Sari banaketa eta azken agurra.
18.30.- Bueltarako garraioa.

ORGANO-EMAILEN KANPAINA

Goiz eta arratsaldez.- Alcer Gipuzkoa elkartearen mahai-informatiboa. T. Etxebarria kalean.

URKIKO JAIAK

11.30.- Diana, Galiziako Etxeko gaiteroen eskutik.
12.00.- Umeendako jolasgunea.
12.30.- Salda eta txorizo-jana, Cepa tabernaren pareko arkupeetan.
13.00.- Karate erakustaldia, Arrateko Andra Mari ikastetxean.
16.00/18.00.- Umeendako jolasgunea, Arrateko Andra Mari ikastetxean.
17.00.- Toka eta igel-toka IX. Txapelketa. P. Etxeberria kalean (Rioja tabernaren ondoan).
19.30.- Cava eta otarrainskaren jai, Rio Samba Show taldeak alaituta.
21.45.- Herri-afaria, Arrateko Andra Mari ikastetxean.
23.30.- Berbena, Caiman orkestrarekin. Arrateko Andra Mari ikastetxean.

Domeka 6

FINALISTA EGUNA

08.15.- Mendi-ibilaldia Deporretik abiatuta.
09.30.- Itzioko parketik, roll-ski igoera.
12.00.- Caeloren omenezko esku-pilota. partidoak. Salda eta txorizoa.
12.30.- Dominak banatzea.
14.30.- Bazkaria, Arrateko zelaian.

URKIKO JAIAK

11.00.- Diana, Eibarko txistulariekin.
12.00.- Meza. San Jose parrokiaren.
12.30.- XII. Paella lehiaketa. II. Mendi-Lasterketa (Urki-Galdaramiño-Urki).
14.00.- Paella lehiaketaren epai-mahaiaren epaia.
17.00.- Umeen jai, Txipilandiaren eskutik.
18.00.- Txokolate-jana.
18.15.- Sari banaketa eta Urrezko Otarrainska ematea.
19.00.- Los Cinco Bilbaínos-en emanaldia.
20.00.- Jaien amaierako suziriak. Arrateko Andra Mari ikastetxean.

ESKOZIA LA BRAVA

12.00.- Herri-poteoa erdialdeko tabernetan, Musika Eskolako soinujoleek alaituta.
15.00.- Herri-bazkaria Ipuruako dorreetako parkean.
17.30.- Umeendako jardueren hasiera, makilaje gorri-urdina, argazkiak, globoflexia, Eibar K.E.aren produktuen salmenta, Ustekabe fanfarrea, break-dance erakustaldia Lost Soul taldearekin, Cadena Ser unitate-mugikorra...
19.00.- Denak Ipuruara taldea animatzera.

KONTZERTUA

12.30.- Cielito Musika Bandaren kontzertua, Elgoibarko Herri Antzokian (11.00etan kalejira, Elgoibarko udaletxeko plazatik hasita).

Martitzena 8

GARAGARDO JAI

19.00.- Eibar Rugby Taldearen Garagardo Jaiaren inaugurazioa (egunero martxan, ekainaren 13ra arte). Untzagan.

BALLETA

20.30.- Eibarko Balletaren emanaldia (sarrera: euro 2). Coliseoan.

Eguaztena 9

DANTZA

20.30.- Eibarko Dantza Garaikide taldearen emanaldia (sarrera: euro 2). Coliseoan.

Eguena 10

DANTZA

20.30.- Eibarko Dantza Garaikide taldearen emanaldia (sarrera: euro 2). Coliseoan.

AFALOSTEKO

20.30.- Eibartarron izakeraz jarduteko laugarren berbaldia (izen-ematea hilaren 9a baino lehen). Montekasino tabernan.



erakusketak

- Ekainaren 18ra arte
"EGOIAZIAREN JOAN-ETORRIA: 10 años de Egoaizia". *Untzagako Jubilatuen Etxean.*
- Ekainaren 20ra arte
ZERAMIKA ETA DIBUJO UDAL ESKOLEN ikasturte amaierako erakusketa. *Portalean.*
- Ekainaren 30era arte
JOSE ZUGASTIren eskultura erakusketa. *Alfa Arten.*
GURUTZE AGIRREren "Mugimendua" argazki erakusketa. *El Ambigú tabernan.*
- Uztailaren 23ra arte
"ARTE Y ARQUITECTURA EN EIBAR" maketa erakusketa. *Armagintzaren Museoa.*

SANJUANETAKO TXOSNAK
ESKAERAK AURKEZTEA:
 Ekainaren 7ko
 14.00ak aurretik. Pegoran.
BILERA:
 Ekainaren 9an, 12.30etan
 udaletxeko 2. solairuan.

ikastaroak

- **UEUko Udako Ikastaroak.**
 Matrikula: *Ekainaren 20ra* arte. Informazioa: www.ueu.org, 943821426 telefonoan.

farmaziak

- 4, barixakua**
 EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
 GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- 5, zapatua**
 EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
 GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- 6, domeka**
 EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
 GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- 7, astelehena**
 EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
 GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- 8, martitzena**
 EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
 GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- 9, eguaztena**
 EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
 GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)
- 10, eguena**
 EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
 GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)
- 11, barixakua**
 EGUNEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 20)
 GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)

telefono jakingarriak

- SOS delak112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00, 08.00, 08.50, 09.00 eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 12.30, 13.30, 15.30, 18.30 eta 20.30. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 15.30etara ordu, 15.00, 15.50etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 07.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.
- EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.
- EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
- EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Laneguna: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.
- EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 15.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.
- EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.
- EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdi. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdi eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

SUDOKUA

1			6			9		
	2	8						3
5					1	6		
			1	6	3			
8			7	3				1
		7	5	9				
		5	2					9
7					4	3		
		9		4				6

DENBORAPASAK

8	5	2	1	7	9	8	3	4
3	7	9	4	5	6	1	2	8
1	6	4	2	3	8	5	9	7
9	8	6	3	2	5	7	4	1
5	2	1	6	4	7	9	8	3
7	4	3	9	8	1	2	5	6
6	3	7	5	9	4	8	1	2
2	1	5	8	6	3	4	7	9
4	9	8	7	1	2	3	6	5

AURREKOAREN EMATZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Aukera! Trasladoa dela-eta, pisu zoragarria salgai Errebalen. 4 logela, egongela, sukualde-jangelak, komun bi, estudioa eta estalitako terraza handia. Guztiz berriztua eta kanpora begira. Prezio interesgarria. Tel. 605-772606.

– Pisua salgai Eibarko erdigunean. 3 logela, egongela, sukualdea, komuna eta trasteroa. Dena kanpora. Sartzeko moduan. Prezio interesgarria. Tel. 629-533695.

– Txaltxa-Zelai ondoan pisua salgai. 3 logela, egongela, sukualdea, komuna eta ganbara. Kalefakzioa. Guztiz jantzita. Fatxada berriztua eta bista onak. Prezio adosteko. Tel. 675-700864.

– Legarren pisua salgai. 3 logela, egongela, sukualdea eta komuna. Bizitzera sartzeko moduan. Berriztua. 25.000.000. pta. Tel. 659-687736.

1.2. Errentan

– Pisua alokagai Santaiñes-lpuruan. Tel. 630-644175.

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibar inguruan. Tel. 688-811385.

– Pisua hartuko nuke alokagai Eibar, Ermua edo Elgoibarren. Tel. 618-714616.

– Pisua hartuko nuke alokairuan. Logela bikoa. Tel. 943-056003 edo 680-749715.

– Urkizu aldean 100 m²ko pisua alokagai. Berriztua. Tel. 653-733457.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Garaje itxia salgai Barakaldo kaleko solairu batean. Tel. 686-224524.

– Txokoa salgai edo alokagai Eibarko erdialdean. Berriztua, sukualdea eta komunarekin. Tel. 669-293427.

3.2. Errentan

– Garajea alokagai Barrera kalean, Lidl-en azpian. Tel. 609-907688.

– Garaje plaza alokagai Eibarko erdialdean. Tel. 600-018668.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da interna zein ordukako lanak egiteko. Tel. 619-445548.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalan eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

– Neska eskaintzen da sukaldari-laguntzaile moduan, nagusiak zaintzeko, jostun... Tel. 634-478086.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 628-014327.

– Emakume arduratsua eskaintzen da etxeko lanetarako: garbiketak egin, umeak zaindu. Tel. 685-715805. Isabel.

– Neska euskalduna eskaintzen da uztailen umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 690-002131. Eider.

– Gizona eskaintzen da eraikuntzan edo tailerrean lan egiteko eta garbiketetan jarduteko. Tel. 699-230807. Omar Faraji.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 699-230807. Loubna Allaoui.

– Neska eskaintzen da 11.00etatik 16.00ak arte nagusiak edo umeak zaintzeko eta tabernan lan egiteko. Esperientzia. Tel. 679-910991.

– Emakumea eskaintzen da 15.30etatik 18.30etara garbiketak lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Tel. 647-044031.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 638-344377.

– Mutila eskaintzen da gizezko nagusiak zaintzeko. Tel. 636-172765.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 680-674323.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo beste edozein lanetarako. Autoarekin. Tel. 680-674323.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak lanetarako. Tel. 666-771701.

– Neska euskalduna eskaintzen da etxeko-lanak egiteko. Tel. 687-114707.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta beste edozein lanetarako. Tel. 675-007271.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Neska eskaintzen da gauzez zein egunez nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 656-493864.

– Mutila eskaintzen da kamarero edo sukaldari-laguntzaile moduan lan egiteko. Tel. 696-849004.

– Eibarko mutila jaietan eta egun soltetan tabernan lan egiteko prest. Esperientzia. Tel. 650-709936.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak lanak egiteko. Tel. 669-311385 edo 943-531903.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak lanetarako. Tel. 680-223378.

– Mutila eskaintzen da baserriko lanetan laguntzeko edo sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 686-077316.

– Mutil euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko, kamarero moduan... Tel. 676-392055.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta kamarera moduan jarduteko. Esperientzia. Tel. 690-154754.

– Mutila eskaintzen da sukaldari-laguntzaile edo okin moduan eta etxeko lanetarako. Tel. 664-067280.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Interna. Tel. 676-035738.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak lanetarako. Tel. 669-966611.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak lanetarako. Tel. 659-080186.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 697-532613.

– Neska eskaintzen da kamarera moduan, garbiketak lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Tel. 657-142376.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta orduka tabernak edo pegorak garbitzeko. Tel. 663-786976.

– Neska eskaintzen da kamarera moduan, garbiketak lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko. Tel. 686-234612.

– Neska eskaintzen da kamarera moduan, garbiketak lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko. Tel. 671-476869.

4.2. Langile bila

– Esperientziadun emakume euskalduna behar da umea zaintzeko (07.30-09.30 eta 16.30-18.30). Tel. 696-536272. Naia.

– Kamarera/o eta sukaldari-laguntzaile behar dira asteburuetan Arraten. Autoa eta esperientzia. Tel. 677-638184.

– Familia euskaldun batek au-pair behar du eurekin bizitzeko Londresen irailetik eainera. miren-london@hotmail.com

– Kamarera/o behar da egun osorako eta asteburuetarako. Tel. 620-536041.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Ingeles Filologian lizentziatuak edozein mailatako klase partikularrak emango lituzke. Tel. 661-221411.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Combi hozkailua salgai. Ia berria. 150 euro. Tel. 943-120308. Pili.

– Ekainaren 28an AC-DCK Bilbon emango duen kontzerturako sarrerak salgai. Tel. 671-841563.

– Volkswagen furgonetarako atzeko bizikletak eramatekoa erosiko nuke. Tel. 671-841563.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Ezkontza eguneko eratzuna aurkitu da Txaltxa-Zelai inguruan (C.C. a C.V. jartzen du). Tel. 667-301166 (Marta) edo 677-174623 (Zuriñe).

MGEP

MONDRAGON IKASTROA POLITEKNIKOA

www.mondragon.edu/mgep
e-posta: comision@gep.mondragon.edu
Tel: 943 71 21 91

Oñati gestio heziketa

www.mondragon.edu/onpresagintza
e-posta: gestioheziketa@gmail.com
Tel: 943 71 93 09

GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK 2010-2011

Izen-ematea

Maiatzaren 31tik Ekainak 11 arte

Matrikulazioa

Uztailaren 7tik 13 arte

Lanerako gertu!

ESKAINZA AKADEMIKOA

MGEP

- Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Industri Ekipoaren Mantenimendua

Oñati Gestio Heziketa

- Administrazioa eta Finantzak
- Idazkaritza
- Merkataritza Kudeaketa eta Marketing-a



I AM
TÚ ERES

... هي

GU GARA

VOUS ÊTES
ELES SÃO

Udako
ikastaroak
2010

Eibarko Udal Euskaltegia
25.
urteurrena

Eibarko Udalak eta HABEK
diruz lagundutako zentroa

Bista Eder 10 -PORTALEA-

euskaltegiaeibar@telefonica.net

Telefona: 943 70 09 12 Faxa: 943 82 00 89

MATRIKULATZEKO EPEA: Ekainaren 1etik 18ra


- Euskalduntze eta Alfabetatzea
- 1., 2. eta 3. maila (EGA) prestatzeko ikastaroak

TITULU OFIZIALAK

- Goizez, 4 orduko ikastaroak
- Ekainaren 28tik uztailaren 23ra
- Irailean jarraitzeko aukera (azterketa aurreko egunetan, egunero 2 ordu)

Bekak eta diru-laguntzak ditugu. Azterketa gaintuz gero, matrikula berreskuratzeko aukera. Etorri eta galdetu! 16 urtekit gorakotzat

**EIBARKO
UDAL
EUSKALTEGIA**



TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

Materia arriskutsuak / C.A.P.

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko
nazioarteko agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak



Estaziño kalea, 8
Tel. 943 70 23 78

BERRIA

T. Etxebarria, 7
Tel. 943 70 23 84



Irribarreak
gaztetu egiten gaitu

m **bista eder**
clínica dental - hartz klinika

Inplante eta
Hortz-Estetikan
adituak

Bista Eder Hartz Klinika
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75